MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

UDAL ERAIKUNTZA ETA INSTALAZIOEN GARBIKETA ZERBITZUA ESKAINTZEKO PROZEDURA ARAUTUKO DUEN OINARRI TEKNIKOEN PLEGUA.

I. KAPITULUA.- KONTRATUAREN XEDEA

1. ART.- Plegu hau Munitibarko Udalaren menpe dauden zenbait eraikuntza eta lokalen garbiketa zerbitzua esleitzeko prozedurarako osatutako dokumentazioaren parte da.

2.ART.- Eskaintza tekniko-ekonomikoetan jasoko diren zerbitzu zehatzak hurrengo lokal eta eraikinen gain izango dira:

A.- Udal eraikina.
B.- Osasun zentroa.
C.- Eskola.
D.- Kiroldegia: gimnasioa, aldagelak, pasilloa eta frontoiko kanpoko komunak.
E.- Plazako kristalezko autobusaren markesina.
F.- Udal etxebizitzetako atariak.

3. ART.- Eskaintzak aurkeztu ondoren, Udalak egokiena dela uste duen proposamenari kontratua esleitzeko ahalmena izango du. Plegu honetan ezarritakoa kontuan hartuz, argi gelditzen bada aurkeztutako eskaintzen aldetik

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

behar adinako bermerik ez dagoela, edota zerbitzu horien ordainketari aurre egin ahal izateko udal aurrekontuan ezintasun ekonomikorik balego, lehiaketa hutsik utzi ahal izango du Udalak.

4. ART.- Esleipen eskaintzari dagokionez, interes publikoko arrazoiak daudenean bidezko deritzon aldaketak sartu ahal izango ditu Udalak, bi aldeen adostasunez.

5. ART.- UDALAREN ESKUDUNTZAK.

Munitibarko Udalak ondorengo funtzioak hartzen ditu bere gain:

- Zerbitzuaren funtzionamendurako ordutegiak eta jarraitu beharreko lan ildoak ezartzea.

- Zerbitzuaren egikaritzaren jarraipena eta ikuskapena egitea, eta honen irizpide orokorrak ezartzea.

- Prestazioaren objektu diren eraikuntza, lokal publiko eta instalazioak Udalaren beharretara egokitzea, baita horien erabilera mailaren araberako garbiketa maiztasuna ere.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

6. ART.- ESLEIPENDUAREN BETEBEHARRAK.

1. Kontratuaren objektua eta bertan ezarritako mugak errespetatzea, zerbitzua beharrezko ardurarekin emanez, une oro bermatu beharko delarik zerbitzuaren egikaritza egokia.

2. Udalak emandako irizpideak jarraitzea, zerbitzuaren egikaritza ikuskatzea onartuz.

3. Behar den langilegoari dagokionez, Gizarte Segurantzako obligazioetan eta legez ezarritako gainerakoetan egunean egotea.

4. Prestazioa modu egokian eman ahal izateko beharrezkoa den pertsonala ezartzea, hutsegite, baja, ... egoerak estaltzeko.

5. Udal eraikin guztien komunetako erabilgarrien hornidura eta berrezarpena esleipendunaren ardura izango da, honen kostua kontratuaren prezio barruan egongo delarik.

7. ART.- Ondorengo artikuluetan lizitazio prozeduraren objektu diren lokal bakoitzaren garbiketa sistema ezartzen da, enpresa eskaintzaileentzat oinarri bezala balio izan dezaten beren eskaintza egiteko orduan, aurreko artikuluetan zehazten den moduan.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

II KAPITULUA.- BURUTU BEHARREKO ZERBITZUEN DESKRIBAPENA.

A) UDAL ERAIKINA:

A1.- BULEGO OROKORRAK, IDAZKARITZA, ALKATETZA, LIBURUTEGIA, KANPOKO KOMUNA:

- **Astean behin:**

- Zakarrontziak eta gainontzekoak hustu.
- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzari, ekipamendu, dekorazio objektuen... garbiketa hezea.
- Zoruaren garbiketa beharra nabaritzen denean soilik egingo da eta egokiak diren produktuak erabiliz, honen egoera egokia bermatzeko.
- Komunak garbitu, lanbasarekin pasatu eta desinfektatuko.

- **Bi hilabetero**

- Armairu, apal eta idazkaritzako artxibategiaren goi-aldeen garbiketa.

- **Urtean behin**

- Armairu eta apalen hustea eta hauen garbiketa hezea.
- Aulkien estalkien orbanen garbiketa eta ezabatzea.
- Teklatu eta telefonoen desinfektatzea.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

- **A2.- SARRERETAKO PASILUAK ETA ESKAILERAK (BEHE OINA ETA 1. ETA 2. OINAK)**

- **Astean behin**

- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzariei hautsa kendu.
- Zoruaren materialarentzat egokiak diren produktuekin zorua fregatu.

- **A3.- ERAIKIN OSOKO KRISTALAK**

Garbiketa orokorra urtean behin eta horrez gain, garbiketa premia nabaritzen denean.

- **A4.- PLENO ARETOA, BERTAKO GELAK, KZ GUNEA ETA JUBILATUEN ELKARTEKO LOKALA:**

- **Astean behin:**

- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzari, ekipamendu, dekorazio objektuen... garbiketa hezea.
- Zakarrontziak, etb. hustu.
- Zoruarentzat egokiak diren produktuekin zorua fregatu.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

- **Bi hilabetean behin**

- Armairu, apal eta idazkaritzako artxibategiaren goi-aldeen garbiketa.

- **Urtean behin**

- Armairu eta apalen hustea eta hauen garbiketa hezea.
- Aulkien estalkien orbanen garbiketa eta ezabatzea.
- Teklatu eta telefonoen desinfektatzea.

- **A5.- LANPARAK / ARGI PUNTUAK**

(ERAIKUNTZA OSOA)

Garbiketa urtean behin.

- **A6.- UDALETXEKO TEILATU-AZPIKO OINA: ARETOA ETA BULEGOA**

- **Astean behin:**

- Zakarrontziak eta gainontzekoak hustu.
- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzari, ekipamendu, dekorazio objektuen... garbiketa hezea.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

- Zoruaren garbiketa beharra nabaritzen denean soilik egingo da eta egokiak diren produktuak erabiliz, honen egoera egokia bermatzeko.

- **Bi hilabetero**

- Armairu, apal eta artxibategien goi-aldeen garbiketa.

- **Urtean behin**

- Armairu eta apalen hustea eta hauen garbiketa hezea.
- Aulkien estalkien orbanen garbiketa eta ezabatzea.
- Teklatu eta telefonoen desinfektatzea.

Ekitaldi edo erakusketaren bat egonez gero, Udalak eskatuz gero, garbiketa egingo da.

B) OSASUN ZENTROA

Astean hiru aldiz:

- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzariei hautsa kendu.
- Zakarrontziak eta gainontzekoak hustu.
- Zorua lanbasarekin pasatu, produktu egokiak erabiliz.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

- Komunak garbitu, lanbasarekin pasatu eta desinfektatu.

Leihoetako kristalen garbiketa orokorra urtean behin eta horrez gain, garbiketa premia nabaritzen denean.

C) ESKOLA

1.- IKASTURTE GARAIAN GARBIKETA OROKORRA.

- **Egunero**

- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzarien eta hauen osagarri diren elementuei hautsa kendu.
- Zakarrontziak hustu.
- Zorua fregatu produktu egokiekin.
- Komunak egunero garbitu, fregatu eta desinfektatuko dira.

- **Astean behin**

Zuzendaritza gela eta liburutegia astean behin eskobatu eta lanbasarekin garbituko dira.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

ERAIKIN OSOKO LEIHO ETA BARANDILETAKO KRISTALAK, ZUZENDARITZA GELA BARNE

Garbiketa orokorra urtean behin eta horrez gain, garbiketa premia nabaritzen denean.

2.- OPOR GARAIKO GARBIKETA OROKORRA (Ikasturtea bukatu eta bestea hasi arteko epealdia)

Opor garaian garbiketa orokorra egingo zaie gelei eta komunei, ondoren zehazten den moduan:

- Zorua fregatu eta desinfektatu.
- Zokaloak fregatu.
- Altzari, leiho, etab.-ei hautsa kendu.
- Mahaiak eta arbelak garbitu, beren osotasunean fregatuz.
- Bainugeletan komunei desinfekzio orokorra egingo zaie, eta azulejo eta ateak garbituko dira.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

D) KIROLDEGIA

D.1. GIMNASIOA, ALDAGELAK ETA PASILLOA

- **Astean bi aldiz:**

- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzariei hautsa kendu.
- Zakarrontziak hustu.
- Komunak garbitu, fregatu eta desinfektatu.

Eraikin osoko leihoak eta ispiluen garbiketa orokorra urtean behin eta horrez gain, garbiketa premia nabaritzen denean.

D.2. FRONTOIKO KOMUNAK

- **Astean bi aldiz:**

- Eskobatu edo bere kasuan mopa pasa.
- Altzariei hautsa kendu.
- Komunak garbitu, fregatu eta desinfektatu.

Eraikin osoko leihoak eta ispiluen garbiketa orokorra urtean behin eta horrez gain, garbiketa premia nabaritzen denean.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

E) Plazako kristalezko autobusaren markesina.

- **Bi hilerik behin**
- Kristalen garbiketa orokorra

F) Udal etxebizitzetako atariak

- Astean behin.
- Eskobatu, lanbasa pasatu eta desinfektatu.
- Kristalak garbitu.

12. ART.- ORDUTEGIAK ETA ZERBITZUAREN MAIZTASUNA.

Zerbitzuaren maiztasuna aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera egin beharko da.

Zerbitzua Udaletxeko lan ordutegitik kanpo, eskolako ordutegitik kanpo, eta liburutegiaren jendaurreko ordutegitik kanpo burutu beharko da.

Kiroldegia eta frontoiko kanpoko komunak astelehen eta ostiral goizetan garbituko dira.

Garbiketa orokorra opor garaian egingo da, eta esleipendunak egoki ikusten duenean.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

III. KAPITULUA.- MATERIALAK ETA LANGILEGOA

13. ART.- GARBIKETAKO MATERIALAK ETA TRESNAK.

Garbiketako material eta produktu guztiak, kontsumigarriak barne (komuneko papera, eskuko xaboia, eskuak sikatzeko papera, zabor-poltsak, etb..), eta lana aurrera eramateko beharrezko tresna guztiak, esleipendunaren kontura izango dira, baita horien konponketa eta aldaketak ere.

14. ART.- PERTSONALA.

Esleipendunak, adjudikazio garaian Munitibarko udal eraikin eta instalakuntzen garbiketarako plantillan dagoen langileriarekiko, enplegu-emaile lez subrogatu beharko da.

15. ART.- Esleipendunak behar bezala aseguratuta eduki beharko du bere kargura duen langilegoa, eta zehaztutako lanak egiteko garaian hirugarrenei sor dakizkien kalte posibleak estaliko dituen erantzukizun zibileko asegurua eduki beharko du.

16. ART.- Zerbitzuetako langileriak uniformearekin lan egin beharko du, eta langileen erregimena dagokion hitzarmen kolektiboak dioenaren araberakoa izan beharko da.

MVNiTiBARKo VDALA
ARBATZEGI - GERRIKAITZ
TFNO. 94 616 40 07
48381 MUNITIBAR - BIZKAIA

17. ART.- Garbiketa enpresak hondakinen sailkapena egin beharko du udal eraikin bakoitzean dauden birziklatze zaborrontzien arabera eta zabor hau kalean ezarritako dagokion zaborrontzira garraiatu beharko du.

EGINBIDEA: Nik ezartzen dut, Udaleko Idazkaria naizen honek, jasoarazteko Klausula Administratiboen eta Oinarri Teknikoen Plegu hauek bidez onartu direla.

Munitibarren, 2021eko ekainaren 24an.